

### Gotzon Hermosilla

Joan den igandeko hauteskundeetan, EAJ izan da lehenengo indarra, botoetan -349.429, atzeritirik iritsiko direnak oraindik zenbatur gabe- zein legebiltzarkide kopuruan -31 eserleku lortu dituzte-. Alderdiaren zuzendaritzak, EBB Euzkadi Buru Batzarrek, bilera egin zuen atzo Sabin Etxean datuen balorazioa egiteko, eta amaitutakoan BERRIarekin hitz egin zuen Itxaso Atutxa (Bilbo, 1967) EBBko kide eta Bizkai Buru Batzarreko lehendakaria.

### Pozik zaudete lortutako emaitzekin?

Hala da. Guk hasiera-hasieratik jendaurrean esan genuen gure erronka zela herrialde bakoitzean eserleku bat gehiago jasotzea, eta helburu hori jarri genuenean ez genekien COVID-19aren pandemia gertatuko zenik. Horrek hauteskunde egoera osoa aldatu egin du, baina guk eutsi diogu erronka horri, eta lortu egin dugu, gainera. Oso eskertuta gaude.

### Abstentzioa handia izan da.

Gogorra da hain abstentzio handia ikustea, baina errespetu osoz hartzen dugu, hori ere aukera bat delako eta horrela onartu behar da. Hala ere, aukera hori politikoa ere bada, eta Araban ikusi dugu. Zaila da hain parte hartze txikia eta Vox legebiltzarrean sartu izana lotzea, baina, seguru asko, parte hartze handiagoarekin ez zen sartuko, eta orain 4.000 botorekin barruan daude.

Arazoak hainbat izan daitezke. Guk gizartearen igartzen gure EAJ garaitzat ematen zela, inkestek ere hala adierazten zuten, eta beharbada horrek eraman du zenbait jenderi pentsaraztera bere botoa ez zela beharrezkoa, eta hori gure kalterako izan da. Baina uste dut alderdi eta eragile politikoaren eginkizuna dela jendeari ikusaraztea zein garrantzitsua den boto eskubidea.

### Boto kopuruari erreparatuta, EAJk 50.000 inguru galdutxo.

Boto asko daukanak proportzioan gehiago igartzen du abstentzioaren eragina, nahiz eta botoen %39 eskuratu, eta gure atzetik datorren hurrengoaren ehunekoa ia bikoiztu. Boto asko daukanak ez du erraza gehiago haztea, eta Iñigo Urkullu 2012an lehenengo aldiz aurkeztu zenetik izandako hiru hauteskundeak hartzen baditugu, etengabe egin dugu gorantz, %34tik %39ra. Hori guri baino ez zaigu gertatu: ez dago hiru hauteskundeetan gora egin duen beste alderdirik.

### Zaldirako zaborteziaren inguruko herrietan edo Ordizian



## «Urkulluk egin duen akordiorako eskaintza sakona eta sendoa da»

### Itxaso Atutxa • EAJren BBBko lehendakaria

Atutxak dioenez, jarritako helburua bete du EAJk, herrialde bakoitzean legebiltzarkide bat gehiago lortuta; Voxek eserlekua izatea «mingarria» eginen zaila, baina ziur dago boto horrek ez duela «ezer» erabakiko.

### izandako emaitzak aztertu dituzte? Herri horietan oro har botoak galdutxoak.

Herriz herriko datuen azterketa bihar [gaur] egingo dugu; adibidez, guk Bizkaian BBBren bilera dugu. Baina baten batek mundu bat egin nahi izan du Zaldibarren lehenengo indarra ez garelako izan: normalean ez gara izaten. Jaurkitzen egon garen bi alderdien artean [EAJ eta PSE-EE] ehunekotatik gora egin dugu eta uste dut botoen %50 inguru dugula zona hartan. Eibarren lehenengo indarra izatea garrantzitsua da guretzat.

Gu ez gaude arduratuta horretaz; gu Zaldibarren inguruan arduratzen gaituzena da lanek jarrai dezatela, eta ahalik eta azkarrena ager daitezela bi gorpuk. Askotan esan dugu: guretzat, afera hotzetan gure kezka ez zen botoen

aldetik kalterik egingo ligukeen ala ez. Eta ez dut uste gertatu denik, baina, hala izan balitz, onartuko genuke.

### Zelan hartu duzue Voxek legebiltzarkide bat lortu izana?

Niretzat oso mingarria izan da, pentsatzen nuelako hemen ez

### «Urkullu 2012an lehenengo aldiz aurkeztu zenetik etengabe egin dugu gora; hori guri baino ez zaigu gertatu»

zuela lekuerik edukiko. Gogorra da ikustea zelan erabiltzen dituzten Espainiako Kongresua eta Senatuak euskal gizartearen kontra egiteko. Sarritan, EAJren kontra jotzen dute, baina nik uste dut Euskal Herri osoaren kontra egiteko bide bat dela.

Voxek argi utzi du ez doazela Eusko Legebiltzarrera inorekin

akordioak egitera, euren programa aurrera atera nahian baino. Larria iruditzen zait, baina sistemaren ondorioa ere bada: 4.000 boto ingururekin legebiltzarkide bat lortu dute. UPyD eta Unidad Alavesarekin ere gertatu zen. Eta ez noa sistemaren kontra: nik uste dut egokia dela herrialde guztietan 25 legebiltzarkide aukeratzeko, biztanle kopuruarengatik bat ez dadin bestea baino gehiago izan. Bai horrelako ondorioak daude.

### Legebiltzarren jarduerak beldurak dezaketela uste duzue?

Alde bat badago: Voxen boto horrek ez du ezer erabakiko. UPyDren garaian, [Gorka] Manieroren boto bakarrak sarritan alde batera edo bestera eramaten zuen Legebiltzarrean gehiengoak, eta hori Voxekin ez da gertatuko. Ma-

traka ateratzeko nahikoa izango da, eta ez dut uste euskal gizartearen errealitatearen isla zabal denik, baina lortu dute.

### Azken bi agintalditan PSE-EEren egindako ituna berrituz gero, gobernuak gehiengo osoa izango luke.

Edozein gobernurentzat lasaitasuna da jakitea legebiltzarren gehiengo osoaren babes duela eta egiten duen guztia ez duela beti negoziatu behar, baina horrek ez du esan nahi gehiengo zabalagoa bilatuko ez direnik. Alderantziz: sarritan, errazago da gehiengo zabalago horiek lortzea gutxienezko ziurtatuta dagoen. Nik atzo [igandean] lehendakaria berriro ere jarrera horretan ikusi nuen. Gainerako indarrek erakutsi dute kanpainan bertan ez dutela gurekin gobernuan egiteko inolako asmorik, baina beharbada posible izango da beste herri akordio zabalago batzuk lortzea, ikusita datozen urteetan egoera ekonomiko eta soziala oso konplikatu izango dela.

Agian, bide bat zabaltzen da; ikusi behar da zer jarrera daukagun denok. Batzuetan, gobernuaren dagoenari urik ere ez zaio ematen, baina herri honek guztion parte hartzea beharko du.

### Urkulluk elkarlanean eta auzolanerako eskaintza egin zuten ingandean gauean gainerako alderdiei, baina sinesgarria da eskaintza hori gobernuak gehiengo osoa ziurtatuta badu? Ez dago oposizioa bazter uzteko tentazioaren arriskurik?

Urkulluk egin duen akordiorako eskaintza sakona eta sendoa da. Proposamenak egongo dira. Udaletan eta Batzar Nagusietan, gehiengoak izanik ere, behin baino gehiagotan egin ditugu akordio zabalagoak lortzeko eskaintzak, esaterako, aurrekontuen inguruan, botoak beharrezkoak ez zirenen arren. Baina besteen aldetik ere borondatea eta lana jaso beharko dugu.

### Orain, EAJren eta EH Bilduren legebiltzarkideak %70 dira. Hori babes nahikoa da estatus berri baten aldeko akordio bat aurrera ateratzeko?

Adostasun bat lortu genuen aurreko legealdian, eta EH Bildu izan zen akordio horretatik kanpo kokatu zena, bere proposamena bakar-bakarrik aurkeztuz. Gu hemen gaude, egon ginen toki berean, eta akordiorako prest. Nik nahiko nuke urte luzeetan egindako lan horrek behingoz fruiturik ematea. Herri honek hainbat gauza behar ditu, baina estatutu berri bat ere behar du, eta hori lehenetsiko dugu.